

ERRI-BARRIAK 11N. ZENBAKIA EUSKERA ERABILLEREA



Nire eritxi apalean, azken zenbaki ori orain arteko zenbakietatik zuzenena dogu, euskerearen erabilera dala-eta. Esan bear da, bizkaiera estandarra ezin obean erabili dabela bai jostkerearen aldetik, baita aditzaren aldetik be. Idazkeran irarkolako iratxoak egindako akatsak eta laprastadak kenduta, jakina. Pozgarria, benetan!

Idazki onen zergaitia ez da, baina, inori zorionik emotea edo inor goraldutea. Oidalako gauzatat artu bearko geunke-eta euskeraz ondo eta zuzen idatzea, erderaz emoten dogun lez.

Oraingo onetan, bertan erabili daben iztegiari buruz natortzue. Iztegiaren aldetik, zuzen egon arren be, beste era bateko erispide bat erabiltea egokiagotzat emongo neuke Bakio lako erri euskaldun batentzako. Zuen aurrean ekarri gura dodan erispidea, iztegia erabilterakoan, bertoko iturburuetan edatekoa da. Au da, bertoko berbak erabiltea, bertokoentzako eta eurek darabilen euskera bizi orren ereduarentzako askoz be urragokoak diran berbak erabiltea. Alde batetik daukaguzan altxor txiki orreek ez daiguzan galdu, bestetik bertoko euskereari balioetsi bear deusogulako, euskereak berak gure artean izen ona euki daian gura badogu, beintzat. Eta zelan obeto, bertoko berbak eta esapideak erabiliz baino. Inoiz euskerea Bakion normalduko bada, Bakioko euskeran oinarrituta izango da. Eta alan izan bear be.

Alan bada, ona emen HERRI-BARRIAK 11. aldizkariaren orrialdeetatik ataratako berba zerrenda laburra. An agertuten diran berbak ondo egon arren be, albokoak egokiagotzat artuten dodaz. Esan bear da, Bakioko zerrendako berbetan mundu sinboliko eta hallo etnolinguistiko itzela dagozala, eta bada sasoi baliotasun ori ikusi eta ikusi eragiteko.

HERRI-BARRIAren

otarre.....
aldamenean.....
au dala medio.....
eduki.....
ezinbesteko.....
ots.....
zaintza.....
barne.....
bukatu.....
jadan ik.....
aurtzaindegi.....
u ol de.....
euri-jasa.....
ai patu.....
jabe.....
jabetu.....
bereizi.....
gertuago.....
bizpairu.....
-txo.....
g al detu.....
urbildu.....
Estepona ibaia.....

BAKION

otzara
alboan
au dala eta
euki
bear-bearrezko
au da, esaterako
jagotza
barru
amaitu
daborduko
umezaintoki
uriol
euri-zaparrada
aitatu
jaube
jaubetu
banandu
urrago, parajeago
bi-iru
-txu
itandu
urreratu, parajetu
Oxaorta errekea/ibaia
Nire ekarpena gauzak onduteko izan daiten gura neuke, baita norbera zer eta nongoa dan arrotasunean arro egon daiten be.

Iñiaki MARTIARTU
1997ko zemendian